



hitzen uberan



Euskal Idazleen Elkarteak
eskainitako webgunea

BIDEOA

Ostegun honetan hasi eta apirilaren 21era arte luzatuko da **Gutun Zuria** jaialdia. Margaret Antwood, Antonio Lobo eta Alberto Manguel izango dira AlhondigaBilbaon burutuko diren jardunaldietan, eta baita Harkaitz Cano, Iban Zaldua edota Eider Rodriguez ere.

Jaialdirako sarrerak salgai daude dagoeneko AlhondigaBilbaoko informazio puntuan, Infopuntuan eta **web gunearen bitartez**.

AGENDA




'Twist' liburuaz solasean
Irakurle taldeak eta klubak
2013-04-12 | Iruñea



Lourdes Oñederraren
'Intemperies (babes bila)'
liburuaren aurkezpena
Liburu-aurkezpenak
2013-04-15 | Donostia



Kirmen Uriberekin
'Mussche' nobelaz
solasean
2013-04-16 | Las Karreras



Leire Bilbaorekin
"Scanner" liburuaz
solasean
Irakurle taldeak eta klubak
2013-04-18 | Markina-
Xemein

Sarrera | Kaia | **'Venusen delta' eta 'Munduko bandarik txarrena' plazaratu ditu Txalapartak**

'Venusen delta' eta 'Munduko bandarik txarrena' plazaratu ditu Txalapartak

Osteguna, 2013-04-11 | **Liburu-aurkezpenak**



Bi liburu berri ekarri ditu plazara Txalaparta argitaletxeak aste honetan: asteartean, Annaïs Ninen *Venusen delta*, Garazi Arrula Ruizek itzulia. Gaur bertan Jose Carlos Fernandesen *Munduko bandarik txarrena* komikia, Bego Montoriok itzulia, Harkaitz Canoren hitzaurrearekin. 'Euskalduna eta Bijou' ipuina irakurri dezakezue hemen osorik, eta 'Munduko bandarik txarrena' liburuko orrialde batzuk.

-VENUSEN DELTA, Annaïs Nin. Itzultzailea: Garazi Arrula Ruiz.



Anaïs Ninek, diruak behartuta, ipuin erotikoak idatzi zituen aberats anonimo batentzat 1940ko hamarkadan. Hainbat urtez, narrazio ugari idatzi zituen bildumagile horrentzat, izan ere, horrek dolar bat ordaintzen zion idatzitako orrialde bakoitzeko. Hala ere, ez zen Ninen hasierako asmoa ipuinok argitaratzea, bere ustez pertsonaiak muturreko karikaturak zirelako. Baina, 1970ean, iritzia aldatu zuen, eta bi liburutan bildu zituen ipuinok: horietako bat esku artean daukazu *Venusen delta*.

Ninek idatzitako istorioei erotismo hipnotiko bat darie, eta, haren pertsonaiek, karikatura izatetik urrun, nortasun propio eta sendoa daukate. Horien artean, leku berezia dauka guretzat "Euskalduna eta Bijou" ipuineko protagonistak; nazioarteko literaturan aurrenekoz beharbada, euskaldunok desira objektu gisa aurkezten gaituelako.

